

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### **Bastidako III Zabalguneko Industria-Lurzoruko Zi3 Egikaratze-Unitateko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onarpena**

Iragarki honen bitartez jakitera ematen da udal honek, alkatesaren azaroaren 27ko 364/2019 Dekretuaren bitartez, hasierako onarpena eman diola Bastidako III Zabalguneko Industria-Lurzoruko Zi3 Egikaratze-Unitateko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.

Hori horrela, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 95.2 eta 97.1 artikuluetan xedatutakoa betetze aldera, plan berezi hori hogeï egunez jendeaurrean jartzen da iragarki hau ALHAOn eta El Correo egunkiaren Arabako edizioan argitaratu eta bi horietako azkena argitaratzen denetik hasita. Epe horretan, interesdunek udal idazkaritzan aztertu ahal dute, bai eta egoki deritzaten alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ere.

Eten egiten da urtebeterako era guztietako hirigintza baimen eta lizentziak ematea Hiri-Antolamenduko Plan Berezi horren lurralde-esparruan.

Errekurtsoak: Ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, eta horren kontra ezin da aurkeztu inolako errukortsorik, hutsezko izapide-egintza baita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikulua).

Bastida, 2019ko azaroaren 27a

*Alkatesa*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**